

## Ulises, James Joyce (II).

Ulises liburuaren lehen irakurraldian harrapatu nuen “errebotearen” ostean, jakin behar duzue ez dudala amore eman; aitzitik, liburua ulertzeko ahalegintzen jarraitu dut (baina zeregin horretara nire bizitza kontsokratu gabe), literatura unibertsalaren barruan horren funtsezko tokia zerk betearazten duen ulertu nahian edo.

Lehendabizi, esan behar dut porrota agian nirea izan zela. Akaso, irakurle bezala porrot egin nuen, liburuko kapitulu jakin batzuekin (14 eta 15) topo egitean ez bainuen ulertu nondik nora zetozen planteamendu haiek, nobela orok izan behar duen batasuna apurtzen baitzuten. Eta orduan, liburuaren aurka egin nuen, nahiz eta, akaso, gehiago izan frustrazioagatik beste ezerengatik baino.<sup>1</sup>

[...]

Liburuan atzera egin eta 15. kapitulu luzea irakurri berri dut, hau da, antzezlan baten moduan idatzita dagoena. Eta arazorik ez. Ondo pasatu dut gainera.<sup>2</sup>

Egia esateko, senetik atera ninduen kapitulua 14.a izan zen, era arkaiko batez idatzita dagoen atal bat da; ia inongo ortografia-puntuaziorik ez dauka, paragrafo bakoitza bereizten duten puntu eta bereiz markak kenduta (gaitz erdi!). Atal hau oraindik ez dut irakurri eta gerorako utzi dut. Baliteke liburuko kapitulurik “gordinena” izatea.

Liburuaren hirugarren eta azken atala osatzen duten hiru kapituluak geratuko litzaizkidake oraindik irakurtzeko.

16.ak ez dirudi aparteko zailtasunik daukanik. 17.a zertxobait “bereziagoa” da. Eta 18.a badirudi berriro “erasoka” datorrela, itxura “absurdoa” hartzen duten esaldiak etengabe kateatuz, zeinak berriro ekartzen baitu gogora 14. kapitulua, baina oraingoan hizkerari horren itxura arkaikoa eman gabe, irakurketa orduko kapituluan bezain astuna gertatuko dela ematen badu ere.

Ikusiko dugu zer gertatzen den.

Printzipioz, egia da Ulisesen zatirik handiena aparteko zailtasunik gabe irakurtzen dela, eta originaltasun handikoa gertatzen dela bai pertsonaien ikuspegitik bai nobela-garapenaren ikuspegitik. Baina, batez ere, harrigarria da Joycek erabilitako espresioaren malgutasuna eta aberastasuna eta, batez ere, bere estiloaren eta bere mundu literarioaren originaltasuna.

---

<sup>1</sup> Zenbateraino ote naiz zintzoa nire buruarekin, zuekin...? Korrontearen aurka joatearen beldur naiz...?

<sup>2</sup> Ez dugu ahaztu behar literaturaren helburua hori dela: irakurlea jostaraztea (umorez, tragediaz, dramaz, abenturaz... baina jostaraztea beti; gogaitzea ez).

Hala ere, nobelaren tankera “esperimentalak” prezio bat ordainarazten diola ez dago dudarik. Izan bedi bata (originaltasuna) bestearen (gordintasuna) truke. Nolanahi ere, honako hau galdetzen diot neure buruari irakurle gisa: liburuak zalantzarik gabe daukan urreaz gain, “bisuteria” pixka bat-edo ere ez al du izango...?

Erantzuna dena delakoa izanda, hementxe jarraitzen dut, liburuarekin bueltaka, berau ulertu nahian, literatura unibertsalean horren aztarna sakona zergatik utzi duen ulertu beharrez.

Beharbada lortuko dut, beharbada ez dut lortuko. Borroka guztien patua hori da eta. Batzuetan irabazten da eta beste batzuetan galdu egiten da (egia esan, amore ematen dugunean baino ez dugu galtzen).

Liburuaren zentzu orokorra ulertu badut ere, irakurle gisa dudan iritzia –zeren irakurle gisa iritzi bat, neurea, propioa, edukitzeko eskubidea izango dut, ezta?– litekeena da kritikari “kotsakratuen” iritziarekin bat etortzea... ala ez.<sup>3</sup>

Bestalde, Joyceren obra itzultzea oso zaila izatea hori ez zait une honetan interesatzen (ez naiz itzulpenaz ari, liburuaz baizik). Izan ere, mundu osoan zailtasun harrigarria duten testuak itzultzen itzultzaile-legio bat dagoela ziurtatu ahal dizuet, era guztietako testu ilun, gordin eta bihurriak lantzen: lege-testuak, testu zientifikoak, notariotza, goi-administrazioa, medikuntza, goi-kazetaritza, eta abar, eta abar. Gainera, jatorrizko testuak beti ez daude idatzita beharko luketen irakurgarritasunaren eta xumetasun erretorikoaren estandarrei jarraituz. Hala ere, itzultzaileek testu horiek aurrera ateratzen dituzte eta, irakurgarriak izatea lortzeaz gain, estilo onean eta txukuntasun harrigarri lortzen dute euren hizkuntzara pasatzea.

Beraz, testu literario bat itzultzeko zaila izateak ez du nahitaez esan nahi literatura-obra zoragarri baten aurrean gaudenik; zoragarria izan daiteke, ez ordea nahitaez, hori kontuan hartu beharreko beste faktore batzuen mende ere badago-eta (zentzu orokor batean esanda).

Horrelako kasuetan garrantzitsua izaten da obra ulertzen lagunduko diguten beste iturri batzuetara jotzea... “laguntza-eske”. Adibidez, liburu baten irakurketa bereziki zaila denean, edo erakargarria gertatu zaigun film baten zentzua iluna denean edo esanahi batzuk eskapatzen zaizkigunean, ondo dago liburu edo film horri buruz egon daitekeen dokumentazioa kontsultatzea, baina dokumentazio astun edota erudituetan erori gabe –printzipioz, behintzat–. Arte-edo kultur lan baten xedea arrazoizko epe baten barruan hobeto ulertzen lagunduko digun dokumentazio labur bat nahikoa izan daiteke obra baten ikuspegi orokorra argitzeko (hiruzpalau orduko irakurketa bat gehienez).

---

<sup>3</sup> Liburua saltzen jarraitzen duten editoreek ziur nago ni akabatzeke planak egiten ibiliko direla honez gero.

Alde horretatik, ondo etor dakiguke Internetei darion nonahikotasunaz eta ubikuotasunaz baliatzea liburuei, filmei, arte-lanei eta abarrei buruz sortu zaizkigun zalantzak argitzeko. “Handiegi” datorkigun obra baten zentzua eta esanahi orokorra –edota partikularra– hobeto ulertzen lagunduko digun azterlantxoren bat topatuko baitugu beti han edo hemen.

Ulisesen kasuan, argi utzi nahi dut ez dudala behar-beharrezkotzat jotzen egilearen azken erreferentziaraino ulertzea, are gutxiago kontuan hartuta zeinen egile ikaragarri oparo eta eruditua den. Gainera, tamaina horretako zeregin “heroikoa” bete ahal izateko, EHUk karrera berri bat asmatu beharko lukeela uste dut, egunen batean James Joyceren Ulises obran benetako “adituak” izateko (ez dakit gizarteak eskertuko ligukeen, baina Ulisesen editoreek eta beren ondorengoek seguru baietz<sup>4</sup>).

Dena dela, zera onartu beharra dago: liburua momentu askotan hildako bat asperduraz birritan hiltzeko gauza dela.

[...]

Laburbilduz, artikulua hau idazten nuen bitartean, 16. kapitulua irakurri dut eta orain hiru kapitulu (14, 17 eta 18.a) baino ez zaizkit falta Joyceren Ulises euskaraz lehengo aldiz irakurtzen amaitzeko. Amaituko banu (lortuko banu), EHUko bulegoetatik pasa ahal izango nintzateke nire diploma jasotzeko, ezta? Zeren, baten bat emango dute, ezta?

Zirikadak alde batera utzita, batzuetan, liburua irakurri ahala, “Casablanca” filmeko esaldi ospetsu hura etorri izan zait gogora behin baino gehiagotan: “Susmoa dut hau adiskidantza handi baten hasiera dela”.

[...]

17. kapitulua ere “erori da”. Ez dakit ba... ezin diot pentsatzeari utzi Ulises liburuaren kapitulu honetan (eta beste batzuetan) jasotako paragrafoak Gobi basamortuko dunak baino lehorragoak direla. Zertan gelditzen da literatura-obra bat kentzen badizkiozu emozioak, sentimenduak, pertsonaien arteko interakzio saihetsezinak, hauen gizatasuna edota narratzailearena... Azkenean, irakurketa ez al da Arau baten, lege baten, artikulua zientifiko baten edota testu tekniko batena bezain lehorra izaten amaitzen...?

Beste zenbaitetan, Ulises irakurtzen dudana bitartean, ez dakit zergatik baina gaitasun handiko autista batzuk etortzen zaizkit gogora, adibidez, apartak direnak zenbaki-sekuentzia oso luzeak gogoratzen, edota ariketa matematiko oso konplexuak egiteko gai direnak inongo kalkulagailurik erabili gabe, edota pieza klasiko bat pianoz jo dezaketena aurretiaz behin bakarrik entzunda eta

---

<sup>4</sup> “Ekintzaitetasuna” bultzatzeko ere ez dut uste oso karrera praktikoa izango zenik. Baina, tira, Korana irakasteko karrera bat badagoenez...

partiturarik gabe... Autista horiek, ordea, erabat ezgauza izaten dira sentimenduak, sentsazioak, emozioak edota pertsonen arteko interakzio sentimenduzkorik oinarritzkoenak ulertzeko.

Ikusten duzuenez, Ulises obrak muturreko sentimenduak eragiten dizkit: onerako batzuetan, txarrerako beste batzuetan.

Baina oraingoz, nahiago dut goian esan dudan esaldi batekin geratzea: "Susmoa dut hau [Ulises liburua] adiskidantza handi baten hasiera dela".

Edo "[...] izan daitekeela" agian hobe, ez bainago ziur hala izango den ala ez. Denborak esango du.